

azpeitian zer?

udal aldizkaria
2010eko iraila

131. zenbakia




hiri guneen kalitatea hobetzea
udalerriko mugikortasun beharrak ase
udalerriko natur , paisaia eta bioaniztasun ondarearen zaintza
energia iturri berriztagarrien erabilera lortzea
hondakinen kudeaketa egokia bideratzea
uraren kudeaketa iraunkor eta eraginkorra burutzea
ingurumenaren kalitatearen kontrola hobetu
udaleko ingurumen kudeaketa hobetu eta erosketa berdea bultzatzea
berotegi efektuko gasen (beg) isurpenak murriztea
iraunkortasun baloreetan herritarra sentikortu, hezi, informatu

Xxxxxxxxxxxxxx
xxxxxxxxxxxx

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXX




zer?



- 2 Inkesta
- 3 Herritarren eskaerei erantzunez
- 5 Lehiaketak
- 6 Azpeitiko Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorra
- 8 Erreportajea
- 12 Motxean
- 12 Soreasu
- 14 Euskara

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
 Egilea: Prensua bulegoa
 Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Ale kopurua: 7.000
 L.G: SS - 1148/91



Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Asteartean 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	



zer dio kaleak?

Aurten lehen aldiz informazio puntua plazan jarri da, bertaratu al zara informazio bila?



Joxe Antonio Enparan



Gloria Odriozola



José Camarzana



Eba Iturain

“Egun batzuk kanpoan izan naiz uda honetan, baina hala ere ohartu nintzen turistei informazioa emateko txabola jarri zutela abuztuan. Ni neu ez naiz bertatik igaro, asko ibiltzen naiz eta inguruko lekuak ikusteko ohitura handia dut. Hala ere, oso ondo kokatuta egon dela uste dut herriko plazan, denen begi bistan, normala ikusten dut aurten beste urteetan baino jende eta atzeritar gehiago ibili izana”.

“Herrian egon naizen egunetan ikusi dut informazio puntuaren txabola, baina ez naiz gerturatu, ondo ezagututa ditut herriko txokoak. Herria hobetzen doa eta informazio puntuaren kokatzea ere, lehen Sindikatu Zaharrera joan behar zen. Askotan inguruko lekuak ezagutzeko ohiturarik ez dugu izaten eta kanpora joaten garenean, berriz, dena ikusi behar. Gertu ditugun inguruak ez ditugu behar haina estimatzen, begira, Loiola zein ederra den”.

“Nahiz eta herrian igaro dudana aurtengo udaguztia eta plazatik igarotako bakoitzean informazio puntua ikusi dudana, ez naiz bertaratu inguruko lekuetako informazioa eskatu eta biltzeko. Hala ere, herri-gunean jartzea aurten oso ondo iruditu zait, Azpeitiko erdian egonik, jende gehiagok ikusteko aukera dago eta honela, herrian jende gehiago ibiltzen da bertan. Beste urteetan baino hobeto antolatuta egon dela uste dut”.

“Aurtengo udara Zarautzen igaro dut eta beraz, ezin izan dut ikusi herriko plazan ezarri duten informazio puntua, baina horrela izan bada, oso ondo iruditzen zait lekuz aldatu eta erdi-gunean jarri izana. Kanpotarrek horrela azkarra go ikusiko dute eta errazago lortuko dute behar duten informazioa. Beno, kanpotarrak bakarrik ez, herritarrek ere, nik neuk bertako lekuak ezagutzeko ohiturarik ez izan arren, azpeitiarrentzat ere ondo baitago”.

Herritarren eskaerei erantzunez...

Iradozkizuna

Azpeititik Donostiarako garraio publikoa hobetu beharrean gaude, batik bat larunbat eta igandeetan. Festak direla eta garraio bereziak egoten dira herri askotan, Guipuzcoan berriz abuztuan inoiz baino zerbitzu gutxiago eskaintzen du.

Eneko Aranbarri

Erantzuna

Urola Erdiko garraio plan berria, zerbitzu gehiago eskainiko dituen, definituta dago eta urte amaierarako abian jartzea espero da. Gainera, dirudienez irailean jendaurrean egongo da herritarrek ekarpenak egin ditzaten.

Ingurumen saila

Iradozkizuna

Urrestilla bidean oso argi gutxi dago eta gauetan ez da ezer ikusten. Ba al dago asmorik farola batzuek jartzeko?

Mikel L.B.

Erantzuna

Momentuz behintzat, ez dago pentsatuta. Hala ere, bidegorria egiten denean jarriko da argia.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Suhiltzaile inguruan zebra pasagune bat ahal da ipini?

Erantzuna

Rotonda berria doa hor inguruan eta hau amaitutakoan, eta nola gelditzen den araber, egingo da zebra pasagunea.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Zatitxo bat, jai egunetan sikiera... noizko Azpeitiko plaza oinezkoentzat?

Olatz

Erantzuna

Mahai ganean dugun gai bat da hau, baina azpeitiar asko ez daude alde. Hala ere, egunen batean plaza oinezkoentzat izango denaren eguna iritsiko dela iruditzen zait.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Euskal Herria auzunean, Errotaundi

parean bide gorria egiten aritu dira, horrekin batera aparkalekuak berritu dituzte. Gauza da, jada seinalizatu dituztela, bai bide gorria eta errepidea. Baina normala iruditzen al zaizue, obretan jardun den errepidea zuloz beteta egon eta soilik zuloak tapatu dituztela galipota botata? Uste dut hobe izango zela kale osoan bota balute galipota. Lehen gaizki bazegoen, orain okerrago utzi dute.

Azpeitiarra

Erantzuna

Probisionaltasun osoz daude, obrek jarraitu beharra baitute. Lanak amaitutakoan, dena ondo jarriko da.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Legeak lege dira eta bete egin behar dira baino betetzeko baldintza onak izan beharko ditugu, ezta? zertaz ari naizen? Kanpaina bat hasi da Azpeitian txakurra dugunok kakak bildu behar ditugula aginduz. Guk beti bildu izan ditugu gure txakurraren kakak baina arazo larri bat dugu: kakak botatzeko edukiontzirik ez badago zer egiten dugu beraiekin, etxeko zakarrontzira bota? hori ez da kontua. Sanjuandegitik pasatzen den eta Azkoitiraino doan bidegorrian apenas dago zaborontzirik eta askotan kilometroak egiten ditugu txakurraren kakak eskutan hartuta. Hori ondo irudituko zaizue, ez? ba hurrena arauak jarri aurretik kondizio onetan ipini. Agur bat eta espero dugu betetzea eskakizun hau.

Joxe Jabier Arizaga

Erantzuna

Batzuk jarrita daude eta besteak, berriz, eskatuta daude, osatzen ari baikara. Zorionak eskatzeagatik.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Kaixo! Santutxotik Etxe Alaira doazen espaloiak oso egoera kaxkarrean daude (eskuineko espaloia ia ez da existitzen ze beti daude kotxeak aparkatuta espaloiarenean eta ezkerrekoa (igogailura doana) oso gaizki dago, gainetik ezin dela ibili, harri solte ugarirekin, hanka azpiak urratzen dituela, euria egiten duenean irrastakorra... Santutxotik igogailura edo

Etxe Alai aldera joateko errepidetik joan behar izaten dugu. Errepidea estua da, aldaparekin ez dago bisibildade asko eta zenbait kotxe oso azkar pasatzen dira hortik duen arriskuarekin. Metro batzuk bakarrik dira, beraz, ez da hainbeste kostatuko baldosa berri batzuk jartzea ezta? Urteak dira ezin dela hortik ibili!

Agurtzane Gomez

Erantzuna

Aztertzen ari garen gaia da; alde bat aparkalekuentzat egokitzea eta beste aldeko espaloia hobetzea da asmoa.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Kiruritik Loiolarako sarbidean aparkamentu- dutarako norantzan, kurba txarra dago "Katalango" baserri ondoan eta ez da ikusten beste aldetik kotxerik badatorren. Susto bat baino gehiago hartzen dira, eta hori ekiditeko ispilu bat jartzea eskatuko nuke, konponbide erraza eta guztion onerako izango dena. Eskerrik asko.

Narrea Larrañaga

Erantzuna

Arrazoia duzu. Autoek oinezkoen pare ibili beharko lukete, astiro, baina arazorik ez dago ispilua jartzeko.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Santutxo, Etxe-alai eta Aranako bizilagun guztiok errepide berdina erabiltzen dugu gure auzoetatik irteteko, bide-zoruaren egoera tamalgarria da, dagoeneko adineko pertsonen erorketa eta estropezu batzuk ikusi ditut Prat aurreko maldaren hasieran. Noizko konpondu behar da zuloz eta pitzaduraz beteta dagoen bidea? Zebrabideko gunea, batik bat, hondatuta dago. Ezbehar bat gertatu aurretik konpontzea espero dugu. Agur. (erredakzioan itzulia)


Angel

Erantzuna

Premia handia du, horren jakitun gara, baina zaila izango da aurten egitea. Lehentasunak markatu behar dira baina zerbait egin behar dela badakigu.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Ni ere enpresari



Iraurgi Lantzen garapen agentziak ekintzaile berriak egiteko aukera eskaintzen du. Edozeinek izan daiteke enpresari, formula magikorik ez dela behar argi utzi nahi dute arduradunek, hauen ustez, “aukerak aprobetxatzean” dago gakoa.

Mikel Alberdi

Naiart serigrafia tailerra



arotz bezala urte batzuetan ibili ondoren, aldaketa bat emateko gogoa piztu zitzaion Mikel Alberdiri eta Diseinu Grafikoa ikasten hasi zen. 3 urteko ikasketak bukatu bezain pronto, lagun batek ixtera zihoazen serigrafia tailer bat bien artean hartzeko proposamena luzatu zion. “Nire asmoa ez zen enpresari izatea, lana bilatzea baizik, baina egia esan, ilusioa egin zidan. Normalez, ez naiz ausarta izan inoiz, baina niretzat egindako lana zen eta aurrera egin nuen”, agertu du. Iraurgi Lantzenekin harremanetan jarri ziren Mikel eta

bere lankidea laguntza eskatzeko eta 4 hilabete ondoren, Naiart tailerra zabaldu zuten, 2007ko urtarrilean. Ekintzailearen hasierak ez direla errazak onartzen du Alberdik; “Hasieran probaketa asko egin genituen. Izan ere, gauza asko egin edo hartu nahi dituzu enpresaren baitan, baina poliki-poliki zure lekua eta eginbeharrak zeintzuk diren ezagutzen duzu”. Hala ere, probaketa horien emaitza Blai marka izan da, kamisetentzat diseinuak sortuz. “Gure lanaren bigarren mailan dago, baina marka zabaltzen joatea espero dugu”, dio.

Mireia Amenabar

Nabar jostundegia



naiart serigrafia eta errotulazio tailerreko lehenetako bezeroa, Nabar jostundegia izan zen. Diseinu Industrialia ikasten ari zen bitartean, jostea zuen zaletasun nagusi bezala Mireia Amenabarrek. Lana jostun bezala aurkitu eta horretara dedikatu izan da beti: “Etxetik kanpo aritu izan naiz beti, batentzat josi, bestearentzat josi... baldintzak ere ez ziren oso onak izaten eta esperientzia nahikoa hartu nuela pentsatu nuenean, nire kabuz aritzea erabaki nuen”, gogoratu du. Enpresa bat sortzeko pausoak zeintzuk

diren ez zekien Amenabarrek eta horregatik jo zuen Iraurgi Lantzena: “Nik ez nuen ideiarik eta bertan esan zidaten zer egin. Asko egiten dutena zera da, zuk altu pentsaraztea. Agian buruan ideia asko dituzu baina hauek ordenatu eta organizatu egin behar dira eta niri adibidez, oso ondo etorri zitzaidan. Familiaren babesa ere oso garrantzitsua da, nire kasuan gainera, ni bakarrik nintzen enpresa zabaltzeko eta uste nuena baino garrantzia gehiago izan zuen familiak emandako laguntza”.

Aitziber Langaran

Diseinu.net



Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasi zuen Aitziber Langarenek, baina Arrasatetik Azpeitira etorri zen mutilarekin bizitzeko; "Bera autonomo bezala egiten zuen lana altzairuen diseinurako programa bat saltzen. Nik ere autonomo izateko ideia nuen buruan eta bere lanarekin bat egiten zuen zerbaiten bila hasi nintzen, negozioa osatu eta dibertsifikatzeko", adierazi du. Sektorea aztertzen hasi zen eta diseinu aldetik bidea egitea zegoela ohartuta, Diseinu Industrialean diharduen Diseinu.net enpresa zabaldu

zuen 2008an. "Askoz ere erosoagoa da beste enpresa baten lanean egon eta hilabete bukaeran soldata jasotzea, ez duzu kezkarik. Ekintzailea izanik, eta zure enpresa izanik, beti gauza berrien bila ibili behar zara, beti pentsatzen egon behar duzu. Baina positiboagoa dela uste dut, beti izan dut oso garbi nire buruarentzat nahi nuela egin lan, eta niretzako, behintzat, merezi du. Gainera, beste baten enpresan lan egitean baino gehiago baloratzen duzu, zu zeu enpresari izanda, hilabete amaieran jasotzen duzun dirua", azaldu du Langarenek.

Enpresa txikien lehiakortasuna hobetuko du Mikroenpresak Mugimenduan proiektuak

Eskualdeko 3 eta 10 langile bitartean dituzten 16 enpresek abiatu dute egitasmoa



Urola Erdiko enpresa txikien lehiakortasuna indartzea eta garapen ahalmena sendotzea. Hori izango du helburu nagusi bezala Iraurgi Lantzen garapen agentziak abian jarri duen Mikroenpresak Mugimenduan izeneko proiektu berriak.

Bertan hiru eta hamar langile bitartean dituzten zerbitzu eta industria sektoreetako eskualdeko enpresa guztiak parte har dezakete eta momentuz, behintzat, Azkoitia eta Azpeitiko 16 enpresa inplikatu dira bertan. Hala ere, ekimenean interesa dutenek Iraurgi Lantzeneko bulegoetan izena emateko aukera dute.

Proiektua abiapuntu bezala, garapen agentziak enpresa txikien errealitatea ezagutzeko ikerketa egin zuen, mikroenpresen zailtasun eta oztupo nagusiak zeintzuk diren jakin eta gaur egun duten egoera ezagutzeko.

Diagnosia egin ondoren, enpresek dituzten lehentasunak eta garatu beharreko ekimenak jasotzen dituen Ekintza Plana definitu zuten. Horrela, Plan honek hiru urteko iraupena izango


du eta lehendabiziko urterako Ekintza Plana zehaztasunez definituta dago eta denboran zehar planifikatuta.

Trebetasun komertzialak eta gaitasunak lantzeko tailerrak, enpresa txikien finantziatorako bideak eta laguntza publikoak ezagutzeko jardunaldi informatiboak eta enpresen eskaeraren araberako ekintza aldakorak antolatuko dituzte hurrengo hilabeteetan zehar. Azken hauen artean, bankuekin negoziatzeko jakiteko edo teknologia berrien gaineko jardunaldiak, sektorekako bilerak, enpresa traktoreetara eta ferietara bisitak, kalitateari buruzko tailerrak edo mikroenpresen arteko eskualdeko feria kokatu daitezke.

Arduradunek, ordea, garbi utzi nahi dute mikroenpresak beraiek izan behar dutela protagonistak, "eta akzio planean identifikatu diren ekintza desberdinetan

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX



naturarekiko errespetutsuagoa den Azpeitia bat eraiki nahi du Udalak. Azken urteetan ekintza ugari egin dira ingurumenaren alde, baina egindako jarduera hauek aztertu eta 2020ra begira jarri dira arduradunak eta helburu nagusia lortzen lagunduko duen Ekintza Plan berria osatu dute. Horrela, Azpeitiko etorkizunaren lerro estrategikoak markatuko dituen oinarria iraunkortasuna izango da.

Azpeitia 2000. urtean hasi zen Agenda 21aren inguruan lanean Udaltalde 21 izeneko esperientzia pilotuan parte hartuz. Lan talde honetan, Azpeitiarekin

batera beste zortzi udalerrik lan egin zuten Agenda 21aren diseinu eta garapenean aitzindari izango zen metodologia garatzen. Lehen prozesu horren emaitza moduan sortu zen, Azpeitiko Agenda 21eko Ekintza-Plana: iraunkortasunaren bidean Azpeitian aurrera eraman beharreko ekintza ezberdinak jasotzen zituen dokumentua.

“Agenda 21ak, ingurumen arloa ez ezik, ekonomikoa eta soziala ere kontuan hartu behar lituzke, baina oraingoan, lehen egin zen bezala bakarrik ingurumen arloa lantzea erabaki zen, lantaldeko gainontzeko herriek bere osotasunean

hartu zuten gaia. Behin erabakia hartuta, ingurumenarekin zerikusia daukaten arlo guztiak landu dira, ez bakarrik ingurune naturala, hala nola, lurra, antolamendua, mugikortasuna, hondakinak, airearen kalitatea, e.a. Planaren bidez helburuak finkatu egin dira, hau da hemendik 2020ra bitartean lortu nahi duguna definitu da. Ona da jakitea nora iristea nahi dugun”, agertu du Ingurumen saileko teknikari den Izaskun Zeziagak.

“planaren ibilbidea hasi
besterik ez da egin eta orain
guztioi dagokigu gauzatu
dadin konpromisoa hartzea”



Zortzi urte igaro dira Azpeitiko Udaleko Udabatzak Agenda 21eko lehenengo Ekintza-Plan hura onartu zuenetik eta Gipuzkoako Foru Aldundiko 2009ko ebaluazioan agertzen denez, Planaren baitan zeuden ekintzen %29a hastear zegoen eta amaitzen edo amaituta daudenak, berriz, %46 besterik ez. Honek, ekintza-planaren inguruko hausnarketa eta berrikusketa bat burutu beharra erakusten du eta Ekintza-plan berriaren diseinuan buru-belarri hasten da Udala lanean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. “2009ko ebaluazioak, aurreko urteetako balorazioetatik ateratako ondorioak baieztatu egin zituen, 2001ean definitutako plana berrikusi egin behar zela. Izan ere eta emaitzak begiraturaz, orduan definitutako planaren ekintzan ia %30a hasi gabeko egoeran genituen. Eta okerrean ez zen hasi gabe zeudela, inoiz hasteko

aukerarik egongo ez zela ere ikusten genuen”, gaineratu du Zeziagak.

Ekintza Plan berri hau diseinatzeko, lehenik eta behin prozesuaren enfokea edo ikuspegia definitu da: ekintza-plan berriak jaso beharreko gaiak zehaztuz, prozesuko parte hartzaileak zehaztuz eta komunikazio eta herritarren parte-hartze mailako ekimenak zehaztuz.

“planaren ibilbidea hasi besterik ez da egin eta orain guztioi dagokigu gauzatu dadin konpromisoa hartzea”

Ondorengo urrats batean, beharrezko oinarritzko informazioa bildu da. Informazio bilketa honetarako, batetik, udalak dauzkan azterketa eta plan ezberdinak erabili dira (Agenda 21eko

Ebaluazio txostena, Iraunkortasun Adierazleak, Arau Subsidiarioak, Mugikortasun Plana, etab.) eta bestetik, udaleko teknikari ezberdinekin eginiko elkarrizketetatik ateratakoak jaso dira.

Informazio hau guztia bilduta, Ekintza Plana diseinatu ahal izateko beharrezko Diagnostikoa landu zen. Lurraldea eta antolamendua; mugikortasuna eta garraioa; bioaniztasuna eta paisaia; ura; hondakinak; energia; ingurumenaren kalitatea; arriskuaren eta jarduera ekonomikoen kudeaketa; Udal administrazioaren erosketa publikoa eta ingurumen kudeaketa; komunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea eta barne koordinazioa eta transbertsalitatea gaiak aztertu ziren eta identifikatutako behar eta gabeziei jarraituz, Ekintza-Plana egituratu ahal izan da.

Diagnostikoa osatuta, herri inkesta ere Ekintza Plana definitzen lagundu duen beste tresna bat izan da, horrela, herritarrek egindako ekarpenak eta hauen ustez, eraman beharreko norabidea jaso da txosten berrian. "Agenda 21eko prozesu guztietan herritarren parte-hartze bermatu beharra dago. Partaidetza formula desberdinak daude eta lehen prozesuan Herritarren Foroaren bitartez egin bazen ere, oraingoan, prozesuan informazioa jasotzeko herri mailako inkestak telefonikoak erabili dira. Dena den eta partaidetza prozesuaren inguruan esan beharra daukat nire ustez ez ditugu etxeko

lan guztiak egin, nik uste dut Agenda 21eko Foroa berpiztu beharra dugula, sistematikoki eta jakineko maiztasun batekin iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiak lantzen jarraitzeko", azaldu du Ingurumen teknikariak.


"XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX"

Inkesta 150 bizilagunei egin zaie, telefonoz, eta beste gai batzuen artean, Ingurumen gaien artean kezka handiena sortzen dien hiru gai izendatzea eskatzen

zitzaien, baita burutu beharreko ekintzen lehentasunei buruz eta baita, orokorrean (ingurumenaz gain) arazo edo kezka handiena sortzen zien gaia aipatzea. Inkestaren emaitzen arabera, garraio publikoa eta mugikortasuna, hirigintza eta etxebizitza eta ingurumen kalitatea, batez ere airearen kutsadura dira azpeitiarrak gehien kezkatzen diren gaiak.

Iraunkortasun adierazleen artean herritarrek duten gogobetetze mailari dagokionez, honakoak izan dira emaitzak:

LEHENTASUNEZKO EKIMENAK



1. LURZORUAREN ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA OREKATU BATEGATIK APOSTU EGIN ETA HIRI GUNEEN KALITATEA HOBETZEA

Etxebizitza, zerbitzuak, lantokia, aisia eta natur eremuak modu orekatuan eta bizilagun guztiontzat eskuragarri egon daitezen, modu egokian antolatuta egongo den Azpeitia diseinatu nahi da.

2. UDALERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE

Garraio pribatuaren mugimenduak ahal den heinean murriztu eta oinez, bizikletaz edo/eta garraio publikoan erraz eta arin mugituko den hiri eredu dinamiko eta osasuntsu batean bilakatu nahi da Azpeitia.

3. UDALERRIKO NATUR , PAISAIA ETA BIOANIZTASUN ONDAREAREN ZAINZTA ETA LANDA EREMUAREN KUDEAKETA EGOKIA BERMATZEA

Bere natur eremuak, landa-ingurunea, paisaia anitzak eta oro har inguruko "bizia" ezagutu, babestu, kontserbatu eta zentzu handiz kudeatu eta probestuko duen Azpeitia izan nahi da.

4. ENERGIA MURRIZPEN, ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ETA ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIEN ERABILERAN OINARRITUKO DEN ENERGIA EREDUA LORTZEA

Energiaren erabilera zentzudun eta eraginkor bat egin eta energia iturri berriztagarrien erabilera areagotuko duen bizimodu eta jarduera ereduak jarraituko dituen Azpeitia bat izatea nahiko litzateke.

5. KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATUZ HONDAKINEN SORKUNTZAREN PREBENTZIOA BULTZATZEA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA BIDERATZEA

Baliabideen ekoizpen eta kontsumo zuhur eta eraginkorrak egiteaz gain, ondorioz sortzen diren hondakinen sorrera murriztu eta berrerabilpen zein birziklapen mailak areagotuko dituen herri ereduak bultzatu nahi da Azpeitian.

6. URAREN KUDEAKETA IRAUNKOR ETA ERAGINKORRA BURUTZEA

Ur baliabideen egoera ekologikoen zaintzan oinarrituz, herritar guztientzako ur garbi eta osasungarria eskuragarri jarriko duen eta jarduera ezberdinentzako beharrezko ura erabilgarri jarriko duen ur hornidura eta saneamendu sistema egokiak prestatu nahi dira herrian.

7. INGURUMENAREN KALITATEAREN KONTROLA HOBETU, JARDUERAK KUDEATZEKO SISTEMAK SUSTATU ETA INGURUMEN-ARRISKUA PREBENITZEKO MEKANISMOAK ERABILTZEA

Herritar guztien osasunaren zaintza bermatuko duen ingurumen kalitatearen babesa eta udalerriko jarduerak eragiten dituzten kutsadura eta arriskuen gaineko kontrol zorrotzerako behar hainbat baliabide eta kudeaketa programa eraginkor ezarriko dituen udala egituratu nahi da.

8. UDALEKO INGURUMEN KUDEAKETA HOBETU ETA EROSKETA BERDEA BULTZATZEA

Ingurumenaren zaintzan arduratsua izanik, udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratu eta eredu garriak diren neurriak hartzen dituen Udala nahi da Azpeitirako.

9. BEROTEGI EFEKTUKO GASEN (BEG) ISURPENAK MURRIZTEA ETA KLIMA ALDAKETEN BEREZKO ERAGINEI ERANTZUTEA

BEG isurketak kontrolpean dituen eta Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko prest egongo den udalerria izan nahi da.

10. IRAUNKORTASUN BALOREETAN HERRITARRA SENTIKORTU, HEZI, INFORMATU ETA INGURUMEN GAIEN KUDEAKETAN PARTE HAR DEZATEN BERMATZEA

Iraunkortasun eta solidaritatearen baloreetan sentiberatze eta kontzientziazio maila altua izanik, Udalarekin bat eginda iraunkortasunean oinarritutako etorkizun bat elkarlanean eraikitzeko prest dauden herritarrez osatutako Azpeitia nahi da.

Landa Lurraren Bankua, abian



Egitasmo berri honen bidez, eskualdeko lur eskaintza eta eskaria kudeatu nahi da

Urola Kostako ustialekuek duten lur erabilgarrien informazioa bildu eta luraren eskaintza eta eskaeraren arteko lotura errazteko asmoz, Urkome Landa Garapeneko Elkarteak Landa Lurraren Bankua proiektua jarri du martxan. Egitasmo berritzaile honen bidez, nekazaritza jardueraren garapena eta jarraipena lortu nahi da: "Proiektuarekin lurra behar duen nekazariari ematen saiatzea gara. Hau da, egon daiteke lurjabe bat lurra ustiatu ezin duena. Hark lurra utziko liguke eta guk lur hori landu edo ustiatu nahi duen nekazariari utziko genioke. Izan ere, gero eta jende gehiago etortzen zaigu, bai lur eske, baita lurra eskaintzen ere", agertu zuen Xabier Arrutik, Landa Lurraren Bankua proiektuaren arduradunak. Lana aurrera eramateko, baserri baserri elkarrizketak egingo dituzte abendua bitartean, 561 baserrietara joanez guztira. "Horrela, lur gabeziak aztertuko ditugu, baserriarrek eduki ditzaketen egitasmoak, izan ditzaketen arazoak, eskaerak jakiteko eta irtenbidea emateko baliagarri izan daitezkeela uste dugu", azaldu zuen Urkomeko presidentea den Manuel Labakak.

Garmendiko biribilgunearen proiektua, onartuta



Garmendigain eta Oñatzerako errepide artean egingo den lana egiteko 3.266.522 euro bideratuko dira

gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako sailak 3.266.522 euro bideratuko ditu Garmendiko biribilgune berria egiteko, Diputatuen Kontseiluak proiektua onartu ondoren. Lanak hasteko data zehaztu ez den arren, Garmendigain eta Oñatzerako errepidearen bidegurutzean egingo den biribilgune berriaren xehetasunak ezagutzera eman ditu Aldundiak. Honela, biribilgunearen erdiko diskoak 35 metroko diametroa izango du eta zirkulazioko eraztuna 9 metro zabal izango da. Foru Aldundiko arduradunek agertu dutenez, biribilguneak ez du ohiko itxura izango; izan ere, herriko bideen antolamendua errespetatzeko asmoz, biribilgune berriak irletak izango ditu. Era berean, espaloiak egingo dira, egungoei jarraipena emateko, bidegorriak berregingo dira eta bizikleten lerroak lotuko dira. Azkenik, proiektuak Urolako trenaren gaineko pasabide bat eta erabileraz kanpo geldituko den pasabide-txiki bat botatzea aurreikusten du.

Munoaundiko harresia berreskuratuz



Aurtengo indusketa kanpainak 26 boluntarioren laguntza izan du

munoaundiko bosgarren indusketa kanpaina burutu dute uda honetan. Azpeitia eta Azkoitia artean kokatzen den Burdin Aroko herri harresituaren indusketa ekinaldia abuztuaren 2an hasi zen eta hilaren 21 bitartean luzatu zen. Aurtengo asmo nagusia, harresia berreskuratzea izan da eta lan horretan aritu dira Aranzadi Zientzi Elkarte kide den Sonia San Jose eta 26 boluntarioak. Munoaundiko indusketa lanak Foru Aldundiak eta Azpeitiko eta Azkoitiko udalek babesten dute eta instituzioen nahia da, behin harresia berreskuratutakoan, Munoaundiko ingurua museo bilakatzea, bertan egindako aurkikuntzak herritarrek ikus ditzaten. Aurkikuntza hauen artean material desberdinez egindako objektuak eta Euskal Autonomi Erkidegoan bakarrak diren 12 metro diametroko bi dorre nabarmentzen dira. Hurrengo urtean egingo diren indusketa lanetan aztarnategiko arbasoen bizimodua eta ohiturak aztertzen hasiko direla aurreratu dute ordezkariak.

Urola ibaiaren garbitzea



Txukuntze eta dragatze lanak burutzen ari dira Lasao eta Berrosueta bitarteko zatian

azpeitiko Udalak Urola ibaiaren garbiketa kanpaina jarri du abian. Ekimena uztailean hasi zen eta sei hilabetez luzatuko da, urte amaiera arte gutxi gorabehera. Lehenbizi, Enparanetik Berrosuetara bitarteko ingurua garbitu zen, orain Enparan eta Lasao arteko esparruan ari dira lanean eta aurrerago, berri, Ibai-Eder eta bestelako erreketara igaro dute kanpaina. Urolan egin beharreko lana, aldiz, bi sailetan banatuta dago. Horrela, alde batetik, ibaian zehar dauden plastiko, txatarra eta bestelako zikinkeria guztia garbitu eta kendu egingo da zakuetan bilduz. Era berean, ura errazago igaro dadin, zuhaitzen bakanketak eta inasteak egingo dira. Beste aldetik, ibaiko guneez batzuetan (Berrosuetan eta Milagrosa parean) pilatuta dauden harriak kentzeko, dragatze lanak egingo dituzte. Guztira, zazpi lagun ari dira Urolaren garbitze lanak egiten eta Eusko Jaurlaritzak eta Azpeitiko Udalaren arteko lankidetzak hitzarmen baten bidez, langabezia dauden pertsonak aukeratu dira egitasmoa aurrera eramateko.

Loiolako etorbideak izango duen itxura aurreratu du Udalak

XX



azpeititik Loiolara doan etorbideko lanak direla-eta, obra hauek amaitzean errepidearen itxura nolakoa izango den galdetu dute herritarrek. Horregatik, Udalak Etxebeltz ingurutik Loiolako gunera doan bideak eta inguruak etorkizunean izango duten egitura eta forma azaldu nahi die azpeitiarrei. Modu honetan, eta bi argazkietan ikus daitekeen bezala, errepidea berdin geldituko da, ondoan bizikletentzat bidegorria joango da eta espaloi aldean, beriz, korrikalarietzat gunea egokituko da eta espaloia bera joango dira. Era berean, lan hauek bukatzeko epeari dagokionez, hurrengo urteko udaran amaituta egotea espero dutela adierazi dute arduradunek.



oharra

Euskal Autonomi Erkidegoko
Auzitegi Nagusiak Arau
Ordezkatzaileen (2007)
berrikuste txostena
baliogabetu izanaren
inguruko oharra

- Epaia forma-akats baten oinarritu da, txosten ekonomiko-finantziarioa falta zelako, prozedura eta Leku Eder-ek alegatutako edukiak egokiak ziren, Urola Kostako Plan Territorial Partzialak eta Esklabatako lurra ez baitute beste lurrekiko trataera diskriminatzailearik jasaten. Epaia zalantzan jartzeko arrazoiak daudela sinesten dugu, eta horregatik, Udalak helegitea jartzea erabaki du Auzitegi Gorenean.
- Bien bitartean, eta Auzitegi Gorenak azken hitza esan bitartean, arauak indarrean jarraitzen dute. Bestalde, Plan Orokor berria egiteko lanarekin

jarraitzen du Udalak, Plan honek Azpeitiko 2020 urtera arte hirigintza-antolaketa zehaztuko du; indarrean sartzen denetik baliozko planeamendu bakarra izango delarik.

- Bestetik, Etxebeltz-Izarrari aplikagarri den araudiari dagokionez, 1992ko Arau Ordezkatzaileen aldaketa puntual bezala bideratu zenez 2005ean, txosten honekin zerikusirik ez du, eta beraz, Auzitegi Nagusiak hartutako erabakiak ez dio eragingo lur horretako garapeneri.

udal erabakiak

**Uztailaren 22an
Udalbatza osoak
egindako bilkuran
hartu ziren erabakiak
ondorengo hauek
izan ziren:**

- 1.- 2010eko uztailaren 1ean egindako bilkuraren akta onartzea.
- 2.- Ordinario Ley 98 899/08-2 prozeduran EHJANK emandako 451/2010 epaiaren aurka Kasazio Errekurtsoa aurkezteko erabakia berrestea.
- 3.- Azpeitiko Udalararen 2009ko kontu orokorra onartzea (Udala, Patronatuak eta Azpeitia Lantzen erakundeen urteko kontuak barne daude).
- 4.- Alkatetzak 2009ko urritik 2010eko martxora arte emandako Ebazpenen berri ematea

IRAILA

	1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			



20, astelehena

IPIJIN KONTALARIA

Haurrentzako ipuinak - 6 urtetik aurrerako
haurrentzako

18:00etan

Lekua: Liburutegia

24, ostirala

ARGAZKI ERAKUSKETA

Munduan Zehar hainbat ibilbide izenburu-
pean

18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

25, larunbata

700. URTEURRENA

ERDI AROKO AZOKA

ARGAZKI ERAKUSKETA

Munduan Zehar hainbat ibilbide izenburu-
pean

12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

26, igandea

700. URTEURRENA

AZOKA

ARGAZKI ERAKUSKETA

Munduan Zehar hainbat ibilbide izenburu-
pean

12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

27, astelehena

ARGAZKI ERAKUSKETA

Munduan Zehar hainbat ibilbide izenburu-
pean

18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

IPIJIN KONTALARIA

Haurrentzako ipuinak- 5 urtetik aurrerako
haurrentzako

18:00etan

Lekua: Liburutegia

28, asteartea

ARGAZKI ERAKUSKETA

Munduan Zehar hainbat ibilbide izenburu-
pean

18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

29, asteazkena

EIZMENDI AUZOKO JAIAK

12:00 Meza Nagusia

Ondoren bazkaria Erromeria eta bertsola-
riak

ARGAZKI ERAKUSKETA

Munduan Zehar hainbat ibilbide izenburu-
pean

18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

30, osteguna

ARGAZKI ERAKUSKETA

Munduan Zehar hainbat ibilbide izenburu-
pean

18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

UDALEKO GAZTERI SAILAK ANTOLATU-
RIK EKINTZA BEREZIA, JOLASAK, ESKULA-
NAK

12:00etan

Lekua:

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Uztailaren 7, 13, 16, 19, 24, 25, 27 eta 29an.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Uztailaren 5, 10, 11, 17, 18 eta 22an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Uztailaren 2, 6, 12, 21, 23, 28 eta 30ean.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Uztailaren 1, 8, 15, 20, 26 eta 31n.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Uztailaren 3, 4, 9 eta 14an.

